



## *BERDINBIDEAN GIPUZKOA*

### *2016 - 2019 URTEETAKO TXOSTENA*



## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
1.1. Lan markoa	4
1.2. Metodologia	5
1.3. Programan parte hartzeko baldintzak	6
<b>2. UDALERRIAK – ARDURADUN POLITIKO ETA TEKNIKOAK</b>	<b>8</b>
2.1. Parte hartu duten udalerriak	8
2.1.1. Balorazio orokorra	10
2.2. Arduradun politiko eta teknikoak	11
2.2.1. Balorazio orokorra	11
<b>3. METODOLOGIA</b>	<b>13</b>
3.1. Planifikazioak	13
3.1.1. Sarrera	13
3.1.2. Edukiak eta zailtasunak	13
3.1.3. Emaitzak	14
3.1.4. Balorazio orokorra	15
3.2. Banakako saioak	16
3.2.1. Balorazio orokorra	17
3.3. Mintegi kolektiboak	19
3.3.1. Sarrera	19
3.3.2. Landu diren edukiak	20
3.3.3. Parte hartzea	21
3.3.4. Mintegien sistematizazioa	24
3.3.5. Balorazio orokorra	24
3.4. Formakuntza herrietan	26
3.4.1. Sarrera	26
3.4.2. Burututako formakuntza saioak	27
3.4.3. Balorazio orokorra	29
3.5. Genero ikuspegia prozedura administratiboetan	31
3.5.1. Sarrera	31



3.5.2. Parte hartzea	32
3.5.3. Balorazio orokorra	33
<b>4. BERDINBIDEAN EKINTZEN KUDEAKETA</b>	<b>35</b>
4.1. Sarrera	35
4.2. Urtero finantzatu diren ekintzak	36
4.3. Balorazio orokorra	37
<b>5. ONDORIO NAGUSIAK</b>	<b>39</b>
5.1. Aurrera pauso nagusiak	39
5.2. Etorkizunerako erronkak	39
5.3. Balorazio orokorra	40



## 1. SARRERA

### 1.1. Lan markoa

Berdinbidean Gipuzkoa Zerbitzua 2010. urtean sortu zen Gipuzkoako Foru Aldundia eta EUDELen elkarlanaren ondorioz. Helburu bezala, lurraldeko udalerrri txikietan emakume eta gizonen berdintasun politikak bultzatzea finkatu zen. Urte bat beranduago Emakunde eta orduko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza gehitu ziren proiektura, hau 3 lurraldeetan inplementatuz (Berdinbidean Araba, Berdinbidean Bizkaia eta Berdinbidean Gipuzkoa). Azken urteetan, ordea, Berdinbidean Programen lidergoa lurralde bakoitzeko Foru Aldundien esku egon da.

Udalerrri txikiei zuzenduriko aholkularitza zerbitzu bat sortzeko beharra, hasiera batean, udalerrri hauek berdintasun politikak bultzatzeko zituzten zailtasunetan oinarritzen zen, baita beste erakunde batzuk eskaintzen zituzten zerbitzuak eskuratzeko zailtasunetan ere, (diru-laguntzak eskuratzeko zituzten mugak edo/eta Berdinsarean parte hartzeko zailtasunak, besteak beste).

Testuinguru honetan, lehen pausok udalerrri txikien egoera ezagutzea zuten helburu nagusia. Hau da, hasieran egindako lanak udalerrri txiki askorekin mantendu zen harreman zuzenaren bidez, hauen interes, zailtasun eta egoerak ezagutzea, bai eta beraien lanerako aukerak baloratzea izan ziren. Abiapuntu honetatik urteko lan plangintzak eta programak garatzen joan dira.

Lehen bost urteetako ibilbideak 2016. urteko lan markoa finkatzeko eta lan plangintza garatzeko oinarriak eskaini zituen. Hauek izan dira lan marko honen ezaugarriak:

- **Metodologiari** dagokionez, mintegi kolektiboen eta banakako lan saioen osagarritasuna lortzea.
- **Inplikazio** politiko eta tekniko bultzatzea.
- Udalerrri bakoitza **planifikazio estrategikoak** garatu ditzan aholkularitza, laguntza eta akonpainamendua eskaintzea.
- Urteko lan plangintza udalerrrien **erritmora** egokitzeko beharra kontutan hartzea.
- Udalerrrien behar eta egoeretara **egokitzeko** beharrezkoa den **malgutasuna** eskaintzea.



## 1.2. Metodologia

2016. urtean finkatu ziren metodologiaren ardatz nagusiak azken 4 urteetan mantendu izan dira:

### Planifikazioen garapena

Zerbitzuak eskainitako eredu komun bat jarraituz udalerrri guztiek beraien planifikazioa garatu behar izan dute. Planifikazio hauek ondorengo ardatz nagusien arabera egituratu dira: *Gobernantza, Balioen Aldaketa eta Emakumeen Jabekuntza, Indarkeria Matxistatik Gabeko Gipuzkoa*.

Udalerrri bakoitzak, urtero, planifikazio batean berdintasun politiken inguruan garatzea aurreikusten zuen lan ildoen lanketa izatea programan parte hartzeko baldintzetako bat izango da 2016tik aurrera.

### Banakako lan saioak

Banakako lan saioak udalerrietan burutu diren lan saioak izan dira. Orokorrean udalerrri bakoitzak izendatu dituen erreferente tekniko eta politikoarekin burutzen dira. Baina, kasu batzuetan, planifikazioaren garapenarekin inplikaturik egon diren beste politikari eta teknikariek ere parte hartu dute, baita udal batzorde edo/eta planifikazioaren garapenean parte hartu duten eragileek ere.

Saio hauetan udal bakoitza garatzen ari den planifikazioaren lanketa burutu da. Zentzu honetan, banakako saioek plangintza udalaren behar eta aukeretara egokitzea erraztu dute.

### Mintegi kolektiboak

Mintegi kolektiboak plangintzak garatzeko ezinbestekoa den ikasketara eta hausnarketara bideratutako esparruak izan dira. Udalerrri desberdinetako teknikari eta politikariek parte hartu dute. Orokorrean programaren erreferenteak izan direnak, baina baita, planifikazioekin garapenarekin inplikaturik dauden teknikari eta politikariak ere.

Mintegi hauek Donostian egin dira goizeko 9:30etatik 14:30ak arte. Mintegian landu diren gaiak planifikazioen garapenekin eta udalerriek erakutsi duten interesekin lotura izan dute. Urtero ondorengo mintegiak landu dira:

- Planifikaziorako mintegiak: planifikazioen garapen orokorra lantzeko mintegiak.
- Lan ildoak desberdinak garatzeko mintegiak: planifikazioetan barne udalerriek jorratu dituzten lan ildo zehatzak. Mintegi hauek, kasu batzuetan, lan ildo bakoitzaren garapenean esperientzia eta jakintza



du ten profesionalek dinamizatu dituzte. Beste batzuetan, abiapuntua Berdinbidean Programan parte hartzen duten udalerrien esperientziak izan dira.

### Formakuntza saioak udalerrietan

Berdinbidean Programak udalerrietan burutzen diren formakuntza saioak eskaini ditu. Hauen helburu nagusia planifikazioak udal mailan baldintza egokietan garatzeko oinarrizko ezagutza eskaintzea izan da. Formakuntza saio hauek udalerrietako politikari eta teknikari guztiei zuzendurik egon dira.

Hasiera batean formakuntza hauek udalerrien eskaeren arabera burutzen ziren. Baina 2018. urtean programan parte hartzeko baldintzen artean kokatu ziren, planifikazioen garapenerako ezinbestekotzat jo baitzen gainontzeko udal eragileen inplikaziorako. Beraz, programan partehartzen duten udal guztiek, 2018 eta 2019 urteetan, 6 orduko formakuntza jaso behar izan dute.

### Herrietako ekintzak

Udalerriek beraien planifikazioen barne kokatzen diren zenbait ekintza burutzeko Foru Aldunditik laguntza jaso dute. Laguntza hauek eskuratzeko irizpideei dagokionez zenbait moldaketa egin ziren 2018. urtean: alde batetik, planifikazioak eta ekintza fitxak aurretiaz ondo landuta aurkeztu beharra; eta bestetik, laguntza ekonomikoaren kopuruari dagokionez, prozesu izaera duten ekintzek jaso dezaketen gehieneko diru kopurua (3.000€) eta ekintza puntualek jaso dezaketen gehieneko diru kopurua (800€) finkatu ziren.

## 1.3. Programan parte hartzeko baldintzak

Berdinbidean programan parte hartu nahi izan duten udalerriek ondorengo konpromisoak sinatu behar izan dituzte:

⇒ Berdinbidean programan parte hartzeko konpromiso orria udalbatzan onartzea.

Berdinbidean programarekin elkarlanean aritzeko udaleko arduradun teknikoak zein politikoa izendatzea eta elkarren arteko komunikazioa bi mailatan gauzatzeko konpromisoa hartzea. Bi arduradun hauek Berdinbidean baitan garatu beharreko lan-ildoekin lotura izan beharko dute.

⇒ Berdinbidean berdintasun politiken inguruan antolatuko dituen prestakuntza eta hausnarketa saioetan udaleko ordezkari politikoen eta teknikoek parte-hartzea ziurtatzea (formazioa saioak udaletan egin dira).



- ⇒ Berdinbideanetik definitzen diren bilera eta foroetan izendatutako ordezkari politikoak eta teknikoak edo/eta landuko den gaiaren arabera, honen arduradun politikoak eta teknikoak parte hartzea.
- ⇒ Hurrengo urteko aurrekontuan berdintasun politikentzako gutxienezko kopuru bat bideratuko dela ziurtatzea.
  - 2.000 biztanletik beherako herriek: gutxienez 1.500 euro
  - 2.000-5.000 biztanleko herriek: gutxienez 2.000 euro
  - 5.000-10.000 biztanleko herriek: gutxienez 3.000 euro



## 2. UDALERRIAK – ARDURADUN POLITIKO ETA TEKNIKOAK

### 2.1. Parte hartu duten udalerriak

2016. urtean Gipuzkoako 10.000 biztanle baino gutxiago duten udalerrri guztiei Berdinbidean Programaren lan plangintzaren aurkezpen saiora gonbidatu zitzairen. Bi aurkezpen saio egin ziren, bat goizez eta bestea arratsaldean. Ondoren, **22 udalerrrik** eta **2 mankomunitatek** programan parte hartzeko izena eman zuten.

2018an beste aurkezpen saio bat egin zen (oraingoan saio bakar bat goizez), orain arte Berdibidean programan parte hartu ez zuten udalerriei parte hartzeko aukera eskainiz. Era berean 1.000 biztanle baino gutxiago duten udalerriei Zerbitzu berri bat eskaini zitzairen: Berdinbidean Txikiak.<sup>1</sup> Urte honetan izena eman zuten udalerrri guztiek Berdinbidean Txikiak programan parte hartu zuten, 1.000 biztanle baino gutxiagoko herriak zirelako eta Berdinbidean Programan parte hartzeko baldintzak baloratu ondoren hauek betetzeko zailtasunak izango zituztela ondorioztatu zutelako.

Ondorengo taulan 2016. urtean izena eman zuten udalerrrien zerrenda eta tamaina aurkezten da. Beltzez daudenak 2019. urte arte programan mantendu izan dira. Gorritz daudenak, ordea, azaltzen diren arazoiengatik, ez dira mantendu.

Izena eman zuten udalerrriak	Mantendu diren udalerrriak	Biztanle kopurua
Aizarnazabal	✓	708
Alegia	✓	1.790
Altzo	✓	354
Anoeta	✓	1.836
Arama	Zinegotziarekin lan saio bat egin ondoren eta baliabide falta dela eta (arduradun teknikoa izendatzeko zailtasuna) kanpo geratzea erabaki zuten.	199
Asteasu	✓	1.495
Astigarraga	Berdintasun teknikari plaza sortu dutenez Teknikarien Lan Gunera pasatzen da (Idazkariak Formakuntzan parte hartzen du).	4.928
Berastegi	✓	1.042

<sup>1</sup> Zerbitzu honen ibilbidea eta balorazioa beste txosten batean aurkeztu zen GFAko Berdintasun Organoan.





Bideberri (Antzuola, Elgeta, Leintz-Gatzaga)	✓	2.190; 1.101; 264
Getaria	✓	2.657
Ikaztegieta	✓	467
Irura	✓	1.610
Lazkao	✓	5.339
Legorreta	✓	1.516
Lizartza	Hasieran izena ematen dute baina ez dute mintegi eta lan saioetan parte hartzen eta ez dituzte gure mezuak erantzuten.	649
Mutriku	✓	5.068
Oiartzun	2017. urtean berdintasun teknikari bat kontratatzen zuen udalak eta Teknikarien lan gunera pasatzen da.	10.067
Saiaz (Albizur, Beizama, Bidania-Goiatz, Errezil)	✓	293; 140; 534; 616
Segura	2019an ez dute planifikazioa aurkeztzen eta ez dute mintegietan, ez banakako saioetan parte hartzen.	1.480
Urnietza	✓	6.143
Villabona	2019an ez dute planifikazioa aurkeztzen eta ez dute mintegietan, ez banakako saioetan parte hartzen.	5.782
Zaldibia	✓	1.510
Zestoa	✓	6.355
Zizurkil	✓	2.822


2019. urtean 18 udalerrik eta 2 mankomunitatek parte hartu dute Berdinbidean programan (Villabona eta Zestoaren parte hartzea etenaldi batean mantendu direlarik). Taulan ikusten den bezala 2016. urtean izena eman zuten udalerriak izan dira lau urte hauetan programan mantendu direnak.

Tamainari dagokionez, udalerrien %68a 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak dira.


Zentzu honetan zera argitu beharra dago: Altzo eta Ikaztegieta izan ezik, udalerririk txikienek mankomunitateen bitartez parte hartzen dutela Berdinbidean Programan.



## 2016. urtean izena eman zuten udalerrriak



## 2019. urte arte mantendu diren udalerrriak



### 2.1.1. Balorazio orokorra

- Lau urte hauetan zehar hasieratik izena eman zuten udalerrrien artean batzuk programan ez mantentzearen arrazoi nagusiak ondorengo hauek izan dira:
  - Berdinbidean programan parte hartzeko bete behar diren baldintzak erantzuteko zailtasunak. Zentzu honetan, herri txikiak izan dira zailtasun handienak adierazi dituztenak. Arama kasu argi bat izan da. Egoera honi erantzun bat emateko 2018. urtean Berdinbidean Txikiak martxan jartzen da.
  - Berdintasun teknikari baten kontratazioa: Astigarraga eta Oiartzunen kasua.

Bestalde, Legorreta, Segura eta Zaldibia 2019. urtean zehar GFaren Berdintasun Organoaren laguntzaren bidez, hiruen artean berdintasun teknikari bat kontratatzeko pausoak eman dituzte eta 2020rako kontratazioa burutua izatea aurreikusten da.

2019. urteko hauteskundeen ondoren, beste bi udalerririk berdintasun teknikari bat kontratatzeko interesa adierazi dute: Villabona eta Irura.

- 2018. urtean izena ematen duten udalerrri berriak 1.000 biztanletik beherako herriak izanik, guztiek Berdinbidean Txikian parte hartu zuten. Beraz, hasieran izena eman zuten udalerrriak dira lau urte hauetan mantendu izan direnak.
- Udalerrrien inplikazio eta erritmoa desberdina izan da nahiz eta antzeko ezaugarriak partekatu. Zentzu honetan, eta berdintasun teknikaririk ez duten udaletxeak direla kontutan harturik, kasu askotan egindako ibilbidea borondate indibidualen esku egon da.



## 2.2. Arduradun politiko eta teknikoak

2016. urtetik ordezkari politiko eta teknikoak izendatzea programan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izan da. Baldintza hau udalerrien inplikazioa maila tekniko eta politikoan gauzatzeko ezarri zen. Bestalde, Berdinbidean programarekiko interlokuzioa errazteko ezinbesteko baldintza bihurtu da maila politikoan zein teknikoan ordezkariak identifikatuta izatea.

Lau urte hauetan zehar **maila teknikoan**, bi kasuetan izan ezik, arduradunak gizarte langileak izan dira. Bi salbuespen horietan arduradunak kultur teknikari edo dinamizatzaileak izan dira. Guztiak emakumeak izan dira.

**Ordezkarri politiko**ei dagokionez, azken hauteskundeak ospatu arte 8 udalerrietan alkatea izan da ordezkaria: Aizarnazabal, Alegia, Asteasu, Berastegi, Getaria, Legorreta, Mutriku eta Urnieta. 2019. urteko hauteskundeen ondoren Mutrikuko eta Urnietako udaletan ordezkaria alkatea izatetik zinegotzi bat izatera pasa da. Bi mankomunitateetan lehendakaria izan da ordezkaria. Beste kasu guztietan zinegotziak izan dira ordezkari politikoak (gizarte zerbitzuetako zinegotziak eta berdintasunerako zinegotziak).

Ordezkarri politiko gehienak emakumeak izan dira. 2019. urteko hauteskundeak baino lehen 4 ordezkari gizon zeuden. Baina hauteskundeetatik aurrera, emandako aldaketa politikoak direla eta, ordezkari guztiak emakumeak izan dira.

Berdinbidean Programaren baitan egoteak suposatzen duen inplikazio eta lana neurri handi batean – udalen arabera desberdintasunak egon badira ere – ordezkari teknikoen esku egon da. Batez ere, planifikazioen garapenari eta hauetan barneratzen diren ekintzen kudeaketari dagokionez.

### 2.2.1. Balorazio orokorra

- Ondorengo ataletan zehatzago ikusiko den bezala, orokorrean, teknikarien parte hartzea politikarrena baino altuagoa izan da. Adibidez, mintegi kolektiboetan teknikarien parte hartzea mantendu den heinean politikarrena murrizten joan da.
- Berdinbidean programan parte hartu duten erreferente tekniko zein politikoen perfilek, herri gehienetan, berdintasun politikak gizarte zerbitzuekin batera kokatzen direla islatzen dute.
- Erreferente teknikoak beste eginkizun eta zeregin nagusiak dituzten teknikariak izan dira (gehienak gizarte langileak eta bi kultur teknikari). Beraz, orokorrean, berdintasun politiken inguruan gaikuntza zehatzik ez duten langileak izan dira. Era berean, kasu gehienetan, planifikazioen garapena beraien inplikazio, interes eta borondate indibidualen esku egon da eta, ondorioz, langile hauek



zama handiarekin bizi izan dute Berdinbidean programaren baitan burututako lan plangintzen kudeaketa.

- Aldi berean, lan zama politikarien esku egon diren herrien errealitatea ere aipatu behar da. Kasu hauetan, gehienetan, zinegotziek liberaziorik ez izateak guztiz mugatu du lanerako aukera. Herri txikiak izanda, alkateen liberazio orduak mugatuak izan dira.



## 3. METODOLOGIA

### 3.1. Planifikazioak

#### 3.1.1. Sarrera

2016. urtetik aurrera Berdinbideanen ardatz nagusia udalerriek garatu behar dituzten banakako planifikazioak egitea izan da. Lanketa hau mintegi kolektibo, banakako saioak eta udalerriei eskaini zaizkien banakako formakuntzaren bidez osatu da.

Planifikazioen lanketarekin lortu nahi den helburua prozesu izaera duten eta marko estrategiko baten baitan kokatzen diren ekimen planifikatuak bultzatzea izan da. Hau da, lotura gabeko ekintza puntualetatik haratago joatea.

Planifikazioak etengabe osatzen eta lantzen joango diren lan tresna bezala ulertu eta aurkeztuak izan dira. Udalerrien berdintasun politiken garapena gidatuko duten lan tresnak hain zuzen ere. Lanketa hau burutzeko udalerrri guztiek eredu bera jarraitu dute. Aurrez esan bezala, eredu ondorengo lan ildoen arabera egituratua egon da: *Gobernantza, Balioen Aldaketa eta Emakumeen Jabekuntza, Indarkeria Matxistarik Gabeko Gipuzkoa.*

#### 3.1.2. Edukiak eta zailtasunak

Hasierako bi urteetan (2016-2017) planifikazioen lanketa burutzeko ondorengo **edukiak** landu ziren planifikaziorako mintegi kolektibo zein banakako saioetan:

- Herri bakoitzeko behar eta aukeren identifikazioa.
- Planifikazioek barneratzen dituzten helburuak adostu ahal izateko genero ikuspegi batetik errealitate desberdinen inguruko irakurketa.
- Helburuen definizioa eta koherentzia.

Eduki hauek planifikazioetan barneratu ahal izateko udalerriek jarraitu behar zuten eredu komuna marko estrategiko bat definitzeak eskatzen duen hausnarketa barneratzen zuen. Hau da, udalerriek, genero ikuspegi batetik, esku hartzea aurreikusten zuten errealitatearen inguruko oinarritzko hausnarketa burutu eta planifikazioan txertatu behar zuten. Hausnarketa honetatik behar eta interesak identifikatu ondoren, lan ildo bat garatzeko ikuspegi eta marko kontzeptuala landu zuten. Azkenik, egindako lanketarekiko koherentzia mantenduz, udalerriak lortu nahi zituzten helburuak eta martxan jartzea aurreikusten zituzten ekintzak adosten joan ziren.



2018. urtean, ordea, udalerrien eskaera jarraituz, planifikaziorako eredia erraztu egin zen eta jarraipen eta ebaluaziorako tresnak barneratu ziren. Dena den, marko estrategikoaren lanketa etengabekoa izan da 4 urteetan zehar. Hau da, genero ikuspegi batetik eraldatu nahi den errealitatearen inguruko azterketa eta eraldaketa hau burutzeko beharrezkoa den ikuspegi eta marko kontzeptual baten lanketa etengabekoa izan da.

Planifikazioen lanketa hasi zenetik udalerriek berauek garatzeko zituzten **zailtasunak** mahai gainean jarri ziren:

- Planifikazioak garatzeko beharrezkoak diren lan dinamika eta ezagutza eza.
- Genero ikuspegia barneratzen duen errealitatearen ezagutza falta.
- Errealitatearen analisisa eta hausnarketa minimo bat egiteko ohitura falta.
- Berdintasun politikei dagokionez, erantzunkidetasun eza: udalari gehienetan berdintasun politikak sail zehatz baten ardura bezala ulertzen dira.

Zailtasun eta behar hauei erantzun bat emateko mintegietan burututako lanketari banakako saioetan jarraipen bat eman zaio. Era berean, udalarietan burutu diren formakuntzen helburu nagusia planifikazio hauek udal mailan garatzeko beharrezkoak ziren baldintzak sendotzea izan da.

### 3.1.3. Emaitzak

Udalerriek planifikazioak garatzeko izan dituzten zailtasunak ahaztu gabe, lau urte hauetan, kasuak kasu, udalerriek aurrera pauso esanguratsuak eman dituzte:

- Planifikazioetan prozesu izaera dituzten ekimenak garatu dira. Prozesu hauek lau urte hauetan sendotzen joan dira eta eman dituzten emaitzak gero eta agerikoagoak dira.
- Bai teknikari zein politikariek lan ildo desberdinen marko estrategikoa barneratzen joan dira eta hau planifikazioetan islatu da. Zentzu honetan, mintegi kolektiboetan egindako lanketa lagungarria izan dela azpimarratu beharra dago. Hau dela eta alde nabariak egon dira mintegietan parte hartu eta parte hartu ez dutenen artean. Hau da, mintegietan parte hartu dutenek maila handiago batean barneratu dute marko estrategikoa.
- Planifikazioak garatzeko lehen aipatu diren zailtasunak mantendu badira ere, denborak aurrera egin ahala, bai teknikari eta bai politikariek planifikazioaren lanketaren garrantzia azpimarratu dute. Horrela, prozesu izaera duten ekimenak bultzatzeko eta hauen jarraipena egiteko lan planifikatu bat beharrezkoa dela baloratu dute.



- Udalerrri batzuek planifikazioa udal plenotik pasa eta bertan onartua izan ondoren udal mailan pisu gehiago irabazi duela adierazi dute.

#### 3.1.4. Balorazio orokorra

- Berdintasun politikak garatzeko planifikazioetan oinarritutako lan dinamikak sustatzea funtsezko baldintza bihurtzen da, zentzu honetan, herrien planifikazio prozesuetan egindako lana oinarritzotzat jotzen da. Horregatik planifikazioen lanketa Berdinbidean Programaren metodologiaren ardatz bat izaten jarraitu behar duela baloratzen da.
- Hasieratik planifikazio klabeen lan egiteko ohitura eta jakintza falta nabarmendu bada ere, udalerriek aurrera pausoak eman dituzte, batez ere, ondorengo eremuetan:
  - Lau urte hauetan gehien inplikatu diren teknikari zein politikariak prozedura izaera duten eta marko estrategiko baten baitan kokatzen diren ekimenak bultzatzeko lan planifikatuaren garrantziaz jabetu dira.
  - Planifikazioaren ardura zuten teknikari zein politikariak marko estrategiakoa barneratzen joan diren heinean helburuak definitzeko gaitasuna irabazten joan dira.
  - Planifikatu diren ekintzen arteko koherentzia eta lotura handituz joan da.
  - Azken urtean planifikazioen jarraipena burutzeko oinarritzko tresnak landu dira, honek jarraipenak duen garrantziaren inguruko kontzientzia piztu du.
  - Udalerrri batzuk azken urteetan bultzatu dituzten ekimenen emaitzak gero eta argiago identifikatu dituzte, honek hurrengoko pausuak definitzeko erraztasunak eskaini dizkie.
- Kasu askotan ordezkari teknikoak edo politikoak izan dira, bakarka, planifikazioaren lanketak eskatzen duen lan zamaren zati handiena bereganatu dutenak. Hala ere, pixkanaka, eta planifikazioaren garapenak aurrera egin ahala, udaletxe batzuetan beste arlo batzuk inplikatzen joan dira. Kasu zehatz batzuetan, herriko eragileak ere inplikatu dira (batez ere herriko emakumeak edo herriko gazteak).

Dena den, udaletxearen beste arloen inplikazioa oraindik erronka nagusien artean kokatzen da.



### 3.2. Banakako saioak

Banakako saioak orokorrean urte hasieran burutu ohi dira udalerrri guztietan. Saio hauetan, udalerrri bakoitzeko ordezkari tekniko eta politikoarekin batera, urteko planifikazioaren lanketa burutu da. Saio hauek udalerrri bakoitzak bere planifikazioa garatzeko dituen zailtasun zehatzak lantzea erraztu du. Ondorioz, oinarrizko planifikazio baten lanketa lortu da kasu askotan nahiz eta hobetu beharreko elementuak oraindik identifikatu.


Horrez gain, udalerrien eskaerak erantzunez, urtean zehar banakako saioak burutu dira, eta, kasuen arabera, planifikazioarekin lotura zuten udaletxeko beste langile edo zinegotzik eta herriko eragileek parte hartu dute.

Hurrengo grafikan ikus daitekeenaren arabera, lehenengo urtea izan zen banakako saio gehien egin ziren urtea (24 saio 19 udalerrri eta mankomunitateetan). Ez da harrizkoa, beraz, urte honetan banakako saioetan parte hartu duten teknikari, politikari eta herritar kopuru altuena aurkitzea.

Lau urte hauetan politikarien kopurua izan da gehien murriztu dena. Horrela, lehen urtean politikari kopurua teknikarirena baino altuagoa izan bazen ere, beste urte guztietan teknikarien kopurua altuagoa edo parekoa izan da.

Azken urtean izan da parte hartze baxuena. Esan beharra dago 2019ko maiatzeko hauteskundeak zirela eta, zailagoa izan direla banakako saioak burutzea. Udalerrri gehienetan hauteskundearen ostean zerrendetan aldaketa asko egoten dira, eta horrek, orokorrean, politiken garapenean etenak edo erritmo aldaketak sortzen ditu. Berdinbidean Programari dagokionez, erreferente politikoen aldaketa suposatu du hainbat kasutan. Era berean, udalerrri gutxi batzuetan tokiko gobernuetan politikarien aldaketak eman da.

#### Banakako lan saioak: parte hartzea (2016-2019)








Hurrengoko grafikan ikus daitekeen bezala, banakako saioetan parte hartu duten teknikari gehienak emakumeak izan dira (2016. urtean 3 gizon parte hartu zuten). Lehen aipatu den bezala udalerriek izendatu dituzten ordezkari tekniko guztiak emakumeak izan dira. Gehienak gizarte langileak eta gutxi batzuk kultur teknikariak. Hau da, udalerrietan oso feminizatuta dauden lan postuak.

Politikariei dagokionez, nahiz eta ordezkari politiko gehienak emakumeak izan, banako saioetan gizonen parte hartzea altuagoa izan da. Dena den, beraien parte hartzea nabarmen murriztu egin da azken 3 urteetan.

### Banakako lan saioak: emakume eta gizonen parte hartzea (2016-2019)



#### 3.2.1. Balorazio orokorra

Banakako saioen kopurua, zein hauetan parte hartzen duten teknikari eta politikarien kopurua, biak murriztu badira ere, udalerriek beharrezko lan tresna bezala baloratu dituzte. Hau da, planifikazioen garapenerako eta udalerriek dituzten zailtasun eta aukeren lanketarako beharrezko tresna bezala baloratuak izan dira. Zentzu honetan, udaletako planifikazioak definitzeko ezinbesteko espazioak bihurtu dira, herrien errealtatean sakontzeko eta lehentasunak identifikatzeko aukera eskainiz.

Balorazio orokor hau 2019. urtearen azaroan burutako planifikaziorako mintegian parte hartu zutenek erantzun zuten galdetegian baieztatzen da. Galdetegia 15 pertsona erantzun zuten, 10 teknikari eta 5 politikari. Banakako saioei dagokionez ondorengo erantzunak jaso dira:



### Puntuazioa:

Banakako lan saioen **metodologia** eta **dinamizazioa**: **8,8** (bataz bestekoa, Otik 10erako eskalan).

Banakako lan saioen **erabilgarritasuna** planifikazioen garapenerako: **8,8** (bataz bestekoa, Otik 10erako eskalan).

### Iradokizunak eta elementu azpimagarriak:

*Ahal bada gehitzea.*

---

*Banakako lan saio gehiagoren beharra. Urtean banakako lan saio gehiago prozesuaren pausoak egunean izateko.*

---

*Beharrezkoak direla, udal barruko prozesuak garatzeko giltza eta herriko plangintzak osatzen laguntzeko oso baliagarriak.*

---

*Herriko planifikaziorako oso inportantea, baita garapenerako ere.*

---

*Jarraipena ematea.*

---

*Jasotzen dugun orientazioa.*

---

*Maiztasuna ugaritzea.*

---

*Teknikariei emandako formazioa.*

---

*Udaleko planifikazioa finkatzen laguntzea. Aurreko akatsak azpimarratu eta hobekuntzaren bidean laguntzea.*



### 3.3. Mintegi kolektiboak

#### 3.3.1. Sarrera

Esan bezala, mintegi kolektiboak Berdinbidean Programan parte hartu duten teknikari eta politikariek batera parte hartzen duten hausnarketarako, formakuntzarako eta esperientziak partekatzekeo esparruak izan dira. Orokorrean, programaren erreferenteak izan diren teknikari eta politikariek parte hartu dute, baina baita, planifikazioekin garapenarekin inplikaturik dauden teknikari eta politikariak ere. Kasu batzuetan, eta landu diren edukien arabera, herritarrak ere parte hartu dute, adibidez, 2018. urtean egindako jaien inguruko mintegietan<sup>2</sup>.

Mintegi hauen helburu nagusiak udalerriei beraien planifikazioak garatzeko marko estrategiko komunak eskaintzea eta marko hauetan kokatzen diren prozesu izaera duten ekimenak bultzatzeko ezagutza eta tresnak eskaintzea izan dira. Mintegi hauen dinamizazioa Berdinbidean Programaren aholkularitza tekniko edo, landu diren eduki zehatzen arabera, profesional adituen esku egon da.

Ondorengo taulan urte bakoitzean antolatu diren mintegiak eta hauen dinamizatzailen zerrenda aurkezte da:

#### Mintegi kolektiboak (2016-2019)

<b>2016</b>	<p><b>Planifikaziorako mintegiak</b> 3 mintegi <i>Dinamizatzaileak:</i> Berdinbidean Programaren Aholkularitza Teknikoa</p>	<p><b>Mintegiak lan ildoka</b> <i>Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean</i> Mintegi 1 <i>Dinamizatzailea:</i> Lahia Nahia</p>
<b>2017</b>	<p><b>Planifikaziorako mintegiak</b> Mintegi 1 <i>Dinamizatzailea:</i> Berdinbidean Programaren Aholkularitza Teknikoa</p>	<p><b>Mintegiak lan ildoka</b> <i>Emakumeen Jabekuntza eta balioen aldaketa</i> Mintegi 1 <i>Dinamizatzailea:</i> Emagin <i>Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean</i> Mintegi 2 <i>Dinamizatzailea:</i> Beldur Bariken Aholkularitza Teknikoa</p>

<sup>2</sup> Mintegi horien inguruko datu zehatzak urte horretako txostenean aurkitu daitezke.



<b>2018</b>	<p><b>Planifikaziorako mintegiak</b> Mintegi 1 <i>Dinamizatzailea:</i> Berdinbidean Programaren Aholkularitza Teknikoa</p>	<p><b>Mintegiak lan ildoka</b> <i>Jaiak berdintasunean</i> Mintegi 2 <i>Dinamizatzailea:</i> Farapi <i>Indarkeria bizi duten emakumeen arreta I</i> Mintegi 1 <i>Dinamizatzailea:</i> Norma Vázquez</p>
<b>2019</b>	<p><b>Planifikaziorako mintegiak</b> Mintegi 2 <i>Dinamizatzailea:</i> Berdinbidean Programaren Aholkularitza Teknikoa</p>	<p><b>Mintegiak lan ildoka</b> <i>Indarkeria bizi duten emakumeen arreta II</i> Mintegi 1 <i>Dinamizatzailea:</i> Norma Vázquez <i>Emakumeen Jabekuntza eta balioen aldaketa</i> Mintegi 1 <i>Dinamizatzailea:</i> Berdinbidean Programaren Aholkularitza Teknikoa <i>Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean</i> Mintegi 1 <i>Dinamizatzailea:</i> Berdinbidean Programaren Aholkularitza Teknikoa</p>

### 3.3.2. Landu diren edukiak

**Lan ildoak garatu dituzten mintegien edukiak** udalerrien lehentasunetara egokitu egin dira. Zentzu honetan, eta taulan ikus daitekeen bezala, *Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean* udalerrri askoren lehentasunen artean egon da. Emakumeei zuzenduriko jabekuntza prozesuak ere bultzatu dira herri askotan.

Udalerrri askok *Jaia Berdintasunean* gaiarekiko interesa adierazi dute. Aipatu beharra dago, gai honen inguruan egindako mintegiak Gipuzkoako Berdintasun Teknikarien Langunearekin batera antolatu zirela. Beraz, saioetan Berdinbidean Programaren erreferente tekniko eta politikoak eta udalerrri desberdinetako berdintasun teknikariak elkarlanean aritu ziren.

Lan ildoak garatzen joan diren mintegi hauen dinamizazioa, hasiera batean, kanpo profesionalen esku egon da. Hau da, kasu bakoitzean landu den lan eremuaren inguruan esperientzia zuten profesionalen esku. Mintegi hauetan marko estrategiko amankomun bat lantzeaz gain, esperientzia zehatzak landu dira.

2019. urtean egindako azken bi mintegiak (*Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean* eta *Emakumeen jabekuntza eta balioen aldaketa*), Berdinbidean Programan parte hartzen duten udalerrien esperientzia izan dute ardatz nagusi. Zentzu honetan, mintegi hauen helburua udalerrien esperientzien lanketatik abiatu, lan ildo hauek garatzeko udalerriei egokituriko esku hartze proposamen bat diseinatzea izan da.



**Planifikaziorako mintegietan** planifikazio bat garatzeko eman beharreko pauso desberdinak landu dira. Lehen aipatu den bezala, hasierako urtean marko estrategiko bat garatzeko eta helburuak adosteko eman beharreko pausoak landu ziren. 2019. urtean burututako bi mintegietan jarraipen eta ebaluazio fasea landu da.


### 3.3.3. Parte hartzea

Ondorengo grafikan azken lau urteetan burututako mintegi kopuru eta hauetan egon den parte hartzea jasotzen da. Datuak antolatzerako orduan ondorengo sailkapena jarraitu da:

- Alde batetik, urteko mintegi guztien datuak agertzen dira. Zenbat saio egin dira eta hauetan parte hartu duten udalerrien bataz bestekoa. Bestetik, planifikazio mintegien eta lan ildo desberdinak landu diren mintegien datuak bereizten dira.
- Parte hartu duten pertsonen dagokionez bataz besteko datuak kalkulatu dira. Kasu horretan, mintegien arteko bereizketaz gain teknikari eta politikarien parte hartzea bereiztu da.



### Mintegi kolektiboak: parte hartzea (2016-2019)



Grafikan ikus daitekeen bezala urtero 4 mintegi kolektibo burutu dira 2019. urtean izan ezik, 5 mintegi egin zirela. Mintegietan parte hartu duten udalerrri eta mankomunitateen batz bestekoa altuena 2016. urtean eman zen. 2016an aurreko batz bestekoa jaitsi bazen ere, hurrengo 3 urteetan antzekoa mantendu da.

Beste datu bat: urte guztietan udalerrri eta mankomunitateen parte hartze maila planifikaziorako mintegietan lan ildoak garatu diren mintegietan baino altuagoa izan da. Dena den, aldea ez da oso esanguratsua.

Karguen araberako parte hartzeari dagokionez, urte guztietan teknikarien parte hartzea politikariena baino altuagoa izan da. Horrela, politikariek mintegietan parte hartzeko dituzten zailtasunak aipatu beharra dago. Hau da, kasu gehienetan liberatuta ez dauden politikariak dira, beraz beraien dedikazioa mugatua da. Dena den, urte guztietan lan gune berean teknikari eta politikariak elkartzea oso ondo baloratua izan da, bakoitzak duen ikuspegia tartekatzeo aukera bezala bizi izan baita.




Hasierako bi urteetan (2016 eta 2017) teknikarien parte hartze maila planifikaziorako mintegietan lan ildoka garatzen diren mintegietan baino altuagoa izan da. Politikariena, ordea, planifikaziorako mintegietan altuagoa izan da. Azken bi urteetan (2018 eta 2019) bai politikari eta bai teknikarien parte hartze maila planifikaziorako mintegietan altuagoa izan da. Dena den, kasu gehienetan aldea ez da esanguratsua izan.

Emakume eta gizonen parte hartze mailari dagokionez, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, kasu honetan ere emakumeen parte hartze maila altuagoa izan da. Gizonen parte hartze maila altuena, berriro ere, politikarien artean ematen da. Arrazoi nagusiak ondorengo hauek dira:

- 2019. urteko hauteskundeak baino lehen, politikarien artean gizonak ziren 4 ordezkari zeuden. Bestalde, nahiz eta ordezkaria ez izan, Saiazen kasuan mintegietan parte hartzen zuten eta alkate ziren bi gizon egon dira.
- Teknikariei dagokionez, mintegietan landu diren lan ildoan arabera, eremu horretan inplikaturik zeuden gizonak parte hartu dute. Adibidez, indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean lan eremua landu den mintegietan gizonak ziren kale hezitzaile edo gazte teknikari gutxi batzuk agertu dira. Baina, grafikan ikus daitekeen bezala, batzuetan bestekoa oso baxua izan da.

#### Mintegi kolektiboa: Emakume eta gizonen parte hartzea (2016-2019)





### 3.3.4. Mintegien sistematizazioa

Mintegi guztien aktak jasota daude. Hauetan parte hartu duten teknikari eta politikarien zerrendaz gain, burutu diren lan dinamika eta landu diren edukiak jaso dira bertan. Akten lanketa Berdinbidean Programaren aholkularitza zerbitzuaren esku egon da.

Esan beharra dago, aktak lanerako dokumentuak izan direla, bertan marko estrategikoa, esperientzia desberdinak, prozesuak martxan jartzeko eman beharreko pausoak eta lanerako hainbat proposamen jaso baitira.

Dokumentu hauek Berdinbidean Programan parte hartu duten udalerrri guztietara eta GFaren Berdintasun Organora bidali dira mintegi bakoitza burutu ondoren.

### 3.3.5. Balorazio orokorra

Udalerrri batzuk mintegietan parte hartzeko zailtasunak dituztela adierazi dute. Aipatu diren politikariek dituzten zailtasunez gain, teknikarien zailtasunak ere mahai gainean jarri dira. Adibidez, udaletako ordezkari teknikoek (kasu gehienetan gizarte langileak) beraien udalak “zerbitzurik gabe” uzten dituzte goiz horretan zehar eta dagoeneko zerbitzuak murriztuak dituzten herrientzat (txikienak) hau zailtasun nabari bat da. Dena den, urtero eremu politikoa eta teknikoa uztartzen dituzten gunek oso ondo baloratu dira eta datuetan ikusten den bezala udalerriek mintegietan parte hartzeko ahaleginak egin dituzte.

Mintegiak hausnarketa kolektiboen bitartez kontzeptuak barneratzeko eta esperientziak tartekatzeko esparru bezala bizi izan dira. Era berean, udalerrien arteko sareak sendotzen joan dira.

Kasu honetan ere, urtero udalerriek egindako balorazio hauek azaroan egindako mintegian parte hartu zutenek adierazi zutenarekin bat datoz:

#### Puntuazioa

Mintegi kolektiboen **metodologia** eta **dinamizazioa**: **8,8** (batz bestekoa, 0tik 10erako eskalan).

Mintegi kolektiboetan landutako **edukiak**: **8,9** (batz bestekoa, 0tik 10erako eskalan).

Mintegi kolektiboen **erabilgarritasuna** udalerrietako berdintasun politiken garapenerako: **8,9** (batz bestekoa, 0tik 10erako eskalan).





Galdetegian aipatu diren mintegi kolektiboen **indargune** nagusiak:

*Beste herriekin esperientziak elkartrukatzea.*

---

*Beste herrietako esperientziak ezagutzea.*

---

*Beste herrietako esperientzietatik ikastea; Prozesuaren lan teknikoan gidatzea, aholkularitza.*

---

*Esperientziak partekatzea. Tekniko askoren lana ikusi.*

---

*Formazioa jasotzea; Beste herrien errealitatea ezagutzea; Konpartitzea, elkarrekin bidea jorratzea.*

---

*Formazioa, esperientziak partekatu eta politikariak elkartu.*

---

*Gaia azaltzen den argitasuna eta parte-hartzerako irekitzen diren bideak. Giroa lagungarria.*

---

*Gainontzeko herrietako esperientziak jasotzea.*

---

*Gogoeta egitea; beste herrien esperientziak entzutea.*

---

*Herri esberdinetako esperientziak jaso eta planifikazio ezberdinen ezagutza izatea.*

---

*Herri txikien elkarteratzea, planifikatzea.*

---

*Ponenteen profesionaltasuna; beste kideekin konpartitzea esperientziak.*

---

*Sarea; Elkartrukea.*

---

*Udalen esperientzia eta bizipenak entzun ahal izatea.*

---

*Udaletan dauden beharrak ardatz hartzea; Beste herrien errealitatea ezagutzea*

---



Mintegi kolektiboak **hobetzeko** galdetegian jasotako proposamenak:

---

*Berdintasun teknikariak kontratatzeko lanketa egitea. Gauden teknikariak beste saioetako teknikariak gara eta errekonozitu gabeko lana da. Hau aldatzeko lanketa egiteko unea iritsi da.*

---

*Iraupena luzeegia zait, neuronen atentzioak beharra egiten du.*

---

*Lan sistema berdina proposatuko nuke. Udaletan formazioa emateko aukera ere garrantzitsua da.*

---

*Mantentzearekin gustora.*

---

*Prozesu edo programa konkretuetan lanean dabiltzan espezialista ekartzea.*

---

## 3.4. Formakuntza herrietan

### 3.4.1. Sarrera

Udalerrietan burututako formakuntza saioak lan plangintzan hasieratik aurreikusita ez zegoen eskaintza bat izan da. Formakuntza honen beharra 2016. urtean zehar identifikatu zen ondorengo arrazoi nagusiengatik:

- Hainbat udalerririk berdintasun politikak udal mailan garatzeko oinarrizko formakuntzaren beharra planteatu zuten, bai banakako saioetan eta baita Idazkaritza Teknikoarekin mantendutako interlokuzioaren bidez.
- Udalerrietako banakako planifikazioen lanketan beste sailen inplikazioa bultzatzeko sail guztiei zuzenduriko oinarrizko formakuntzaren beharra ere mahai gainean jarri zen.
- Udalak lantzen ari ziren planifikazioak udal mailan garatzeko beharrezkoak ziren baldintzak udal mailan bultzatzeko beharra identifikatu zen. Hau da, planifikazioak maila politikoan zein teknikoan ezagutaraztea, bultzatzea eta hauek garatzeko beharrezkoak diren lan dinamika eta egituren inguruan lehen urratsak ematen hastea.



Behar hauek identifikatu ondoren udalerriei, 2016. urteko urrian, formakuntza eskaintza bat luzatzen zitzaien. Formakuntza honen **helburu nagusiak** ondorengo hauek izan dira:

- Berdinbidean programaren baitan udal bakoitzak landu behar dituen planifikazioetan generoan oinarrituriko estrategia bat sendotzeko oinarritzko ezagutza bat barneratzea.
- Planifikazio hauek lantzea maila politikoan zein teknikoan udal arlo desberdinen erantzunkidetasuna bultzatuz.
- Planifikazioak sendotzen eta zehazten joateko udalek dituzten beharrei erantzunak ematen joatea.

Eskaintako formakuntzen **ezaugarriak** ondorengo hauek izan dira:

- 6 orduko formakuntzak, orokorrean, 3ko bi saioetan banatuta.
- Maila teknikoan eta politikoan eskaini beharreko formazio moduluak ezberdindu badira ere, udalerrien errealitatea eta beharren arabera teknikari eta ordezkari politikoak elkartzen dituen saioak burutuko aukera egon da.
- Aipatu diren helburuak jarraituz, udal bakoitzean landuko eduki zehatzak udalen beharretara moldatu dira. Adibidez, kasu batzuetan, marko estrategikoaren lanketa nagusitu da, beste batzuetan lan egiturak, arlo desberdinen inplikazioa edo/eta planifikazioen jarraipenerako dinamikak.


### 3.4.2. Burututako formakuntza saioak

Esan bezala, formakuntza saio hauek udalerriei 2016. urteko urrian eskaini zitzaien. Hau da, 2016 eta 2017. urteetan formakuntza hauek ez dira udalerriek bete behar dituzten baldintzen artean kokatu. 2018 eta 2019. urteetan, ordea, udalerriek bete beharreko baldintzetan barneratzea erabakitzen da ondorengo baldintzekin: bi urte hauetan (2018 eta 2019) udalerrri bakoitzak 6 orduko formakuntza burutu behar izan du.

Grafikan ikus daitekeen bezala politikarien parte hartzea teknikariena baino altuagoa izan da 2016, 2017 eta 2019. urtean. Alde nabariena 2019. urtean ematen da. Urte honetan, hauteskondeek ekarri dituzten aldaketa politikoak direla eta hainbat udalerrri politikari berriei zuzenduriko formakuntza eskatu dute.



### Formakuntza saioak udalerrietan (2016-2017)




Emakume eta gizonen parte hartzeari dagokionez, udalerrietan burutu diren formakuntza saioetan gizonen parte hartze maila altuena aurkitzen dugu. Batez ere politikarien artean. Hau da, politikarien artean emakumeen parte hartze maila altuagoa izan bada ere, kasu honetan aldea txikia da. Bide horretatik, formakuntza saioen helburuetarako bat bete da; planifikazioen garapena udal eremu desberdinetara zabaltzea eta ez bakarrik feminizaturik dauden eremuetara.

Teknikarien artean, ordea, gizonen parte hartzea txikia izan da. Udaletxeetan langileen artean, orokorrean, emakumeak gizonak baino gehiago direla kontutan hartu beharra dago. Dena den, planifikazioaren garapenean langileen artean feminizaturik dauden eremuen inplikazioa altuagoa izan dela ondorioztatu daiteke.



### Formakuntza saioak udalerrietan: Emakume eta gizonen parte hartzea (2016-2019)



#### 3.4.3. Balorazio orokorra

Udalerrietan burutu diren formakuntza saioek planifikazioak udalaren beste arlo batzuetara zabaltzea lortu dute. Zentzu honetan, udalerriek garatu dituzten planifikazioen inguruko ezagutza ez zuten arloek, honen inguruko informazioa jasotzeaz gain, planifikazioen garapenean izan dezaketen inplikazioa aztertu dute.

Era berean, formakuntza saioetan marko estrategiko baten baitan prozesu izaera duten ekimenak bultzatzeko eman beharreko pausoak eta bermatu beharreko baldintzak landu dira. Horrela, berdintasun politikak garatzeak zer suposatzen duenaren inguruko kontzientziazioa bultzatu da.

Parte hartzearen inguruko datuek erakusten duten bezala, gora beherak egon badira ere, herri txikien ezaugarriak kontutan harturik, parte hartze maila altua izan dela ondorioztatu daiteke.

2019. urteko hauteskondeek erakutsi duten bezala, herri txikietan politikarien artean aldaketa asko egoten dira. Horregatik, legealdi hasieran politikariei zuzenduriko formakuntza funtsezkoa da oinarrizko ezagutzak barnera ditzaten, bai eta egindako ibilbideari jarraipena bermatzeko bete beharreko baldintzatu ditzaten.

Formakuntzari dagokionez, 2019. urteko azaroan bete zen galdetegian ondorengo balorazioak jaso ziren:

#### Puntuazioa

Formakuntza saioen **metodologia** eta **dinamizazioa**: **8,5** (bataz bestekoa, Otik 10erako eskalan).

Formakuntza saioetan landutako **edukien egokitasuna**: **8,5** (bataz bestekoa, Otik 10erako eskalan).



Formakuntzaren **erabilgarritasuna** planifikazioa udal mailan bultzatzeko: **8,3**  
(bataz bestekoa, 0tik 10erako eskalan).

Galdetegian aipatu diren formakuntzaren **indargune** nagusiak:

*Aholkularitza eta herrien elkartaritzea*

---

*Arlo desberdinetako zinegotziak sensibilizatzea.*

---

*Beste sailtako politikari eta teknikariak gaira hurbiltzeko erramienta.*

---

*Genero ikuspegia eguneroko jardueretan identifikatzeko erakusten diren bideak.*

---

*Kontzientzia maila lantzea; Elkar ulertzea; Begirada feminista lantzea.*

---

*Plangintza orientazioz izatea; laguntza jasotzea; Jabetzea idaztearen beharra;  
Beste herriekin partekatzea.*

---

*Talde politiko desberdinen jarrera desberdinak ezagutu eta neurtu.*

---

*Taldekideak formatzea, ahalduntzea.*

---

*Udal langile guztiari betaurreko moreak jartzeko aukera.*

---

*Udaleko politikari eta teknikari desberdinekin gaiaren inguruan hitz egin eta  
inplikazio beharra azpimarratzea.*



Etorkizunari begira **aldaketen** proposamenak:

---

*Berdin jarraituko nuke, lagungarri da niretzat; Beste udal teknikariek ere parte hartzea positiboa izango litzateke (idazkaria, aparejadorea..).*

---

*Esperientzia duzutenek herriarekiko duzuen balorazio bat aurkeztea, zinegotzia eta beste talde eragile batzuei.*

---

*Mantentzea eta gehitzea.*

---

*Sentsibilizazio maila desberdinak daude udal mailan eta agian beharrak ere. Maila desberdinei erantzuna emateko aukera.*

---

*Urtean behin formakuntza udal politikariei eta urtean behin udal langileei. Zeharkakotasuna indartzeko.*

## 3.5. Genero ikuspegia prozedura administratiboetan

### 3.5.1. Sarrera

Genero ikuspegia prozesura administratiboetan lantzeko idazkari eta kontu hartzaileei zuzenduriko lan prozesua 2015. urtean jarri zen martxan. Hasiera batean, prozesu hau *Berdinbidean Ekintzak* ekimenaren bidez finantzatu egin zen. Hau da, Eudelek eta Emakundek lurralde historiko bakoitzean garaturiko Berdinbidean programaren barruan burutzen ziren ekintzak finantzatzeko ezartzen zuten diru kopuruaren bidez.

Ondoren, GFak finantzatu zuen prozesu bat izan da. Are gehiago, 2016tik aurrera Berdinbidean Programan parte hartzeko baldintzen artean udalerrietako idazkariek ikasketa prozesu horretan parte hartzea jarri zen baldintza gisa.

Genero ikuspegia idazkarien betebeharretan barneratzea funtsezkoa zela baloratu zen ondorengo arrazoiengatik:

- Idazkariak udalerrri txikietan figura klabeak dira, langile gutxiko udaletxeetan beti dagoen eta mantentzen den lan postua delako.
- Era berean, eta udalerrri txikietan hauteskundeetan ematen diren aldaketa ugariak kontutan harturik, egonkorra den figura bakarrenetarikoa da.



- Gainera, udalerrri txikietan politikarien presentzia eta dedikazioa mugatua da ordu liberatu gutxi dituztelako. Beraz, beraien dedikazioa udaletxe txikietan altuenetarikoa da.

Martxan jarritako prozesu honen helburu nagusia izaera arrunta duten prozedura administratiboetan genero ikuspegia barneratzea izan da. Hau lortzeko, lan prozesu kolektibo eta praktiko bat martxan jarri zen bi ezagutzetan sakonduz: udal informazioaren sistematizazioa sexu aldagaia sistematikoki txertatzeko betebeharrak eta genero ikuspegia diru-laguntza, hitzarmen eta kontratazioetan txertatzeko klausula berezien ingurukoa.

Lan prozesu hau, Donostian egin diren mintegi kolektibo eta plataforma on line baten bidez burutu da.

### 3.5.2. Parte hartzea

2015. urtean prozesuaren lehen urratsak eman ziren. 2016. urtean oinarriak jarri ziren, batez ere formakuntzari dagokionez. Hurrengo bi urteetan mintegietan udalerriek eramandako kasu praktikoak landu dira.

2016. urtean, on line plataforma bat martxan jarri zen mintegietan burutzen zen lanari jarraipena eman ahal izateko. Baina 2017. urtean on line plataformaren aukera alde batera utzi zen aurreko urtean izan zuen erabilera maila baxua ikusirik.


Hurrengo grafikan ikus daitekeen bezala, mintegietan lortu den parte hartze mailaren batz bestekoa jaitsi egin zen, 2016. urtean gorakada bat izan ondoren. Desberdintasunak oso esanguratsuak izan ez arren, idazkari eta kontu hartzaileei zuzenduriko mintegi hauetan beste mintegi kolektiboetan baino parte hartze maila baxuagoa eman da.

Emakume eta gizonen parte hartzearen batz bestekoa antzekoa izan da urtero, alde handiena 2016. urtean ematen delarik. Zentzu honetan, eta Berdinbidean Programaren erreferente teknikoekin gertatzen ez zen bezala, Idazkari eta kontu-hartzaileen postua ez dago feminizatua. Alderantziz, historikoko maskulinizatua egon den lanpostu bat izan da. Beraz, ez da harritzekoa mintegi hauetan gizonen parte-hartzea beste mintegietan baino altuagoa izatea. Hala ere, emakumeen parte hartzea handiagoa da gizonena baino.





### Generoa prozesura administratiboetan: mintegiak (2015-2018)



#### 3.5.3. Balorazio orokorra

Ondorengo bizipenak urtero mintegi kolektiboetan prozesuaren inguruan egindako balorazioetatik eratorri dira:

- Hasiera batean maila politikoan aginte argia egon zen idazkariek prozesuan parte hartu zezaten. Baina, ondoren, udal mailan ez da egon prozesuaren jarraipenik eta ez da lehentasun politikoaren artean kokatu. Hau dela eta, idazkari askok ardura guztia beraien esku geratu dela sentitu dute.
- 2016. urtean plataforma on line-a lanketa praktikoarekin jarraitzeko formatu egokia ez zela baloratu zuten idazkari batzuek. Besteak beste, parte hartzea errazten ez zuela adierazi zuten, segurtasun eza sortarazten zuela eta ez zuela motibazioa sustatzen. Ondorioz, lanketa nagusia mintegietan eman da.
- Mintegietara etorri diren idazkarien parte hartze maila altua izan da, honek eztabaida eta hausnarketa uneak sortzea erraztu du.
- Mintegietan, ezagutza teorikoaz gain, ariketa praktikoak burutu dira. Esan bezala, azken bi urteetan mintegietan udalerriek ekarritako kasu praktikoak landu dira. Metodologia hau ondo baloratua izan da.
- Mintegietan parte hartu duten idazkariek gaiarekiko interesa eta inplikazioa erakutsi badute ere, udaletxeko egunerokotasunean duten lan karga mintegietan ikasitakoa praktikara eramateko oztopo nagusia dela adierazi dute. Era berean, udaletxeetan gaiarekiko kontzientziario maila baxua dela adierazi dute, eta honek ikasitakoa praktikara eramatea ere oztopatzen duela baloratu dute. Hau da, beste gai batzuek lehentasuna izaten jarraitu dutenez berdintasunaren gaia bigarren maila batean geratu ohi da.



- Idazkari batzuk, beraien lan egiteko dinamikak jarraituz, gai hau jorratzeko momentuko eta berehalako laguntza behar zutela adierazi dute.

2018. urtean idazkari eta kontu hartzaileei zuzenduriko mintegietan partehartzea murriztu joan zen. Hau da, nahiz eta gaiarekiko interesa eta inplikazioa duten idazkari talde bat mantendu, beste udalerrien inplikazioa bultzatu behar zela baloratu zen. Bestalde, planifikazioen garapenean orokorrean Idazkariak izandako inplikazioa mugatua izan dela identifikatu zen. Horregatik, aurrera begira, Idazkariak Udal politiken garapenean duten ezinbesteko rola kontutan izanik, estrategia berriak planteatzeko beharra nabarmentzen da, udaletan eta zehazki prozedura administratiboetarako dagokionez, genero ikuspegiaren garapen mailaren azterketara bideratuz.



## 4. BERDINBIDEAN EKINTZEN KUDEAKETA

### 4.1. Sarrera

Berdinbidean programak lurraldeko udal txikienei laguntza, aholkularitza teknikoa eta gaikuntza eskaintzeaz gain, herrietan ekimen eta prozesuak garatzeko laguntza ekonomikoa eskaini du.

2016. urtetik aurrera, udalerriek Berdinbidean Programaren baitan garatutako planifikazioen barne kokatzen diren ekintzak burutzeko finantzaketa jaso dute. Finantzaketa hau jaso ahal izateko udalerriek beraien planifikazioa aurkeztu eta honen barne kokatzen diren ekintzen inguruko fitxa zehatzak bete behar izan dituzte.

Hasierako urtean (2016) udalerrri bakoitzak gehienez 3.000€ jaso zezakeen. 2017. urtean gehiengoa 2000€ jaitsi zen. 2018. urtetik aurrera irizpideak aldatu ziren eta ondorengo bereizketa ezarri zen:

- **Ekimen puntualak:** Prozesu batean barneratuta ez dauden ekintzak.

Udalerrri bakoitzak urtero gehienez **800€** ditu ekintza hauek finantzatzeko. Ekintza bat baino gehiago finantzatu daiteke 800€ topea pasatzen ez den bitartean.

- **Prozesu izaera duten ekimenak:** Ekimen batek prozesu izaera duela erabakitzeke, gutxienez pertsona talde berdinari (edo ezberdinei baina helburu-gai berdinarengatik inguruan) 3 lan saio bideratzea eskatuko da. Era berean udalaren planifikazioan prozesu bezala definitua dagoen lan ildo baten barruan kokatuta egon beharko da. Hau da, lan ildo baten barruan kokatuta egoteaz gain, helburuak argi definituta egon behar dira, egoeraren inguruko hausnarketa minimo bat burututa eta jasota eta kronograma baten barne kokatzen den epe ertain/luzerako ibilbidea definitua egon behar da. Era berean, orain arte emandako pausoak eta hauen inguruko balorazio minimo bat egin beharko da.

Kasu honetan Udalerrri bakoitzak gehienez **3.000€**ko kopurua du. (2 lan prozesu ordaintzeko aukera legoke betiere gehienezko kopuruaren azpitik baldin badago).




## 4.2. Urtero finantzatu diren ekintzak

Hurrengo grafikoan ikusi daitekeen bezala 2016. urtean udalerrri kopuru txikiak finantzaketa eskatu zuen. Ondorioz, guztira diru kopuru baxuena urte horretan aurkitzen da. Zentzu honetan, esan beharra dago, urte horretan udalerriek beraien plangintzaren lanketarekin hasi zirela, beraz urte amaiera arte – planifikazioen garapenean lehen urratsak eman arte – ez ziren ekintzen implementazioarekin hasi.

Hurrengoko urteetan, planifikazioen garapen aurrera egin ahala, zenbateko osoa handituz joan da. Batz bestekoa ere handituz joan da, azken bi urteetan oso antzekoa mantendu bada ere.

Bestalde, planifikazioa aurrera egin ahala prozesu izaera duten ekimenak nagusitzen joan dira. Horrela 2019. urtean finantzatu diren ekimen guztiak prozesu izaera izan dute.

### **Berdinbidean ekintzen finantzaketa (2016-2019)**




	Udalerrri eta mankomunitate	Guztira	Batz bestekoa	Minimoa	Maximoa	
■	2019	16	41.281,26 €	2.580,08 €	942,00 €	3.000,00 €
■	2018	15	37.889,46 €	2.525,96 €	1.200,00 €	3.000,00 €
■	2017	19	32.512,59 €	1.711,19 €	300,00 €	2.083,50 €
■	2016	10	16.608,10 €	1.660,81 €	200,00 €	2.989,50 €



Finantzatu diren ekintzak kokatzen diren lan ildoak dagokionez, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, *Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean* eta *Balioen aldaketa eta emakumeen jabetzea* nagusitzen dira urte guztietan. Lehenengo hiru urteetan *Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean* gehien finantzatu den lan ildoak izan da, baina 2019. urtean *Balioen aldaketa eta emakumeen jabetzea* lan ildoarekin parekatu egiten da. Urte horretan beste lan ildo berri bat agertzen da (*Jaiak berdintasunean*) eta *Indarkeria matxista (arreta eta sentsibilizazioa)* eta *Mainstreaming eta gobernatza* mantentzen dira.

Lan ildoak dagokionez grafikoan ikus daitekeen garapena udalerrien planifikazioen garapenaren isla bat da. Hau da, hasiera batean udalerrien lehentasunen artean *Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean* eta *Balioen aldaketa eta emakumeen jabetzea* nagusitu ziren. Bi lan ildo hauen pisua mantendu bada ere, beste lan ildo batzuk agertzen eta pisua hartzen joan dira.

#### Berdinbidean ekintzak: finantzatu diren lan ildoak (2016-2019)



### 4.3. Balorazio orokorra

- Udalek diruz jasotzen duten laguntza zertara bideratu den baloratzerakoan beste ekimen batzuk ere garatu dituztela baliabide propioak erabiliz eta, kasu batzuetan, Foru Aldunditik bideratutako baliabideak udalak jarritakoak "osatzea" bideratu direla kontutan hartu behar da.
- *Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean* lan ildoaren barruan finantzatu diren ekimen asko herrietako ikastetxeetan burutzen diren hezkidetzak proiektuak izan dira.



- Hasiera batean udalerrri batzuk zailtasun handiak zituzten planifikazioak garatzeko eta, ondorioz, udalerrri bakoitzari eskaintzen zitzaion diru kopurua erabiltzeko. Beste batzuk, ordea, baliabide gehiago eskatzen zituzten lan prozesuak garatzen zeuden. Dena den, planifikazioen garapena aurrera egin ahala udalerriek martxan jarritako prozesuek baliabide ekonomikoen eskaera handitu dute.
- Planifikazioen garapena aurrera egin ahala prozesu izaera duten ekimenak nagusitu dira. Guzti horregatik, esan beharra dago finantzaketaren zenbatekoa ez da handitu ekimen kopuru gehiago finantzatu direlako, baizik eta finantzatu diren ekimenak baliabide ekonomiko altuagoak eskatzen dituztelako.



## 5. ONDORIO NAGUSIAK

### 5.1. Aurrera pauso nagusiak

Lau urte hauetan ondorengo hauek izan dira emandako aurrera pauso nagusiak:

- Ekintza puntualetatik udalerriek prozesu izaera duten ekimenak bultzatzen hasi dira. Prozesu hauek oinarrizko planifikazio baten barruan kokatzen joan dira. Oinarrizko planifikazioak martxan jarritako ekimenen prozesu izaera indartzeaz gain marko estrategikoen lanketa errazten du.
- Udalerriak gutxinaka lan planifikatu baten oinarrizko dinamikak barneratzen joan dira. Honekin batera lan planifikatu baten garrantziaz jabetzen joan dira eta egindako lanari emandako balioa handituz joan da.
- Udalerriek marko estrategiko bat definitua izatearen garrantziaz jabetzen joan dira. Honek lortu nahi dituzten helburuak eta helmugak identifikatzen lagundu die.
- Lau urte hauetan egindako lanaren emaitzak gero eta ikusgarriagoak bihurtu dira. Ondorioz, udalerriak egindako esfortzua eta emandako aurrera pausoak baloratzeko eta ebaluatzeko beharraz jabetu dira.
- Udalerri batzuetan, egindako ibilbidearen ondorioz, planifikazioen garapenean beste arlo batzuk inplikatzeko hasi dira. Emandako pausoak txikiak badira ere balio handiko urratsak izan dira.
- 2016. urtetik 2019. urtera 4 udalerri berdintasun teknikarien kontratazioan aurrera pauso esanguratsuak eman dituzte. Oihartzun 2017. urtean teknikari bat kontratatu zuen. Eta Legorreta, Segura eta Zaldibia 2020. urteko urtarrilean lanean hasiko den teknikari bat partekatuko dute. Teknikari honen kontratazioarako GFaren laguntza jaso dute.

### 5.2. Etorkizunerako erronkak

- Udal askotan oraindik berdintasun politiken lan planifikatu baterako beharrezkoak diren lan dinamika eta lan egitura koordinatuak finkatzear daude. Hauek finkatzeko oztopo nagusiak agerian egon dira lau urte hauetan:



- Udal askotan berdintasun politiken ardura nagusia sail zehatz batean kokatzen da – gizarte politika sailean batik bat –. Azaldu den bezala, egoera horrek bi ondorio nagusi ditu. Alde batetik, lan zama guztia edo gehiena beste eginkizun edo funtzioak dituzten teknikarien esku geratzen dela. Bestalde, berdintasun politiken inguruko gaikuntza zehatzik ez duten teknikariak izaten dira askotan ardura hau eskuratzen dutenak. Ondorioz, lan zamak sortzen duen denbora faltari ezagutza eza gaineratu behar zaio.
  - Implikazioa, bai maila politikoan zein teknikoan, borondate indibidualen esku egoten jarraitzen du. Zentzu horretan, beste sailen implikazioari dagokionez aurrera pausoak eman badira ere, hauek oraindik oso xumeak izan dira.
  - Berdintasun politikak oraindik ez dira lehentasunen artean kokatzen. Udalerrietan burutu diren formakuntzek kontzientziazio maila bultzatu badute ere, oraindik urrats asko falta dira.
- Udalergi berriak Berdinbidean Programara hurbiltzeko estrategiak beharrezkoak dira. Horregatik, herri txikienen aukeretara moldatzen den aholkularitza eta akonpainamendua eskaini beharra dago.
  - Ibilbide bat duten udalerrien artean teknikarien kontratazioa bultzatzeko bideak bultzatzeko beharra dago.

### 5.3. Balorazio orokorra

Aurreko ataletan aipatutakoa kontutan harturik Berdinbidean Programari dagokionez ondorengo balorazio orokorrak azpimarratzen dira:

- Planifikazio prozesuak indartzea Berdinbidean Programaren ardatza bat izaten jarraitu behar du. Hau da, planifikazioak gauzatu beharreko berdintasun politiken gida bihurtzeko lan egiten jarraitu beharra dago.
- Lan metodologiari dagokionez mintegi kolektiboak eta udalerrietan burutzen diren saioak uztartzen jarraitzea funtsezkoa da.
- Udalerriek egindako lana balioan ipini eta ikustarazi behar da.
- Ibilbide bat duten herriak eta abiapuntuan egon ahal diren herrien arteko elkarlana bultzatzea garrantzitsua dam honek udalergi berriak Berdinbidean Programan barneratzen lagundu dezakeelako.





- Emakume eta gizonen berdintasunerako gaikuntza eta prestakuntza eskaintzea?

Amaitzeko, 2019ko azaroan burutu zen mintegian parte hartu zutenek Berdinbidean Programaren inguruan galdetegian adierazitako **balorazio orokorrak** zerrendatzen dira jarraian, borobilduz, oso positiboak direla azpimarratuz:

---

*Egon naizen denbora laburrean oso gustura etorri naiz saioetara. Ideia ezberdinak hartu ditut udalean gauzatu litezkeenak eta, behintzat, udal politikarieriei proposatuko dizkiodanak.*

---

*Eskerrik asko eskaintako laguntza teknikoagatik eta bidelagun izateagatik.*

---

*Eskerrak eman emandako laguntzagatik, formazioagatik, "diru-laguntzarengatik". Programa jarraitzeko beharra azpimarratuko nuke.*

---

*Guretzako, gizarte langile edo kultur teknikarientzako, oso lagungarria izan da berdintasun politikak proposatzeko udal politikoei. Baita, Politikoek ere parte hartzen jarraitzea oso garrantzitsua da.*

---

*Herri txikietako Berdintasun teknikari intinerante baten kontratazioaren laguntza beharra.*

---

*Mintegi kolektiboak burutzen jarraitu! Oso lagungarriak!*

---

*Nik ezagutu duten tarte motz honetan lagungarri, aberasgarri eta beharrezkoa.*

---

*Ongi legoke udal langile bakoitzarentzat formakuntza espezifikoa izatea: Harrerako administrariak; Administrariak; Arkitektoak; kultur teknikariak; Ingurumen teknikariak; Gazte teknikariak e.a.*

---

*Oraintxe ezagutu dut baina oso lagungarri iruditu zait.*

---

*Oso beharrezkoa den tresna. Gaur egungo politikagintzan herri guztiok behar dugun zerbitzua.*

---

*Oso interesgarria izan da, jabekuntza prozesuan, beharren identifikazioan, eta udal batzordearen garapenerako.*

---

*Zorionak eta eskerrik asko eskaini diguzuen laguntzagatik. Zuen laguntzarik gabe ez ginateke gauden lekura iritsiko. Ezinbestekoak zarete!*